

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Osaba Patxiren
koadernoa

Imanol Azkue

IPERNUPE KULTUR

ELKARTEA

22 orrialde

8 euro

Kartzelan duen
osabaren oparia

Oihana izeneko zazpi urteko neskatila da Imanol Azkue sortu, Txiki Agirre *Keixelak* marraztu eta Roberto Gutierrezek diseinaturako kontakizun honen protagonista. Osaba Patxi bisitatzera kartzelara doan batean, honek koaderno gorri eta uztaidun bat ematen dio opari, esanaz han egiten, ikusten eta pentsatzen dituen guztiak idazteko. Etxera bueltatzeko autoan sartu bezain azkar hasiko da Oihana koadernoan betetzen. Idatziko duen lehen gauza, honakoa: “Kartzelan gauza bakarra dago ona: osaba Patxi”. Hortik aurrera Oihanari bururatzen zaizkionak ezagutuko ditugu: aitzak ez dakiela

desfilatzen; osaba Mikelen baserrian dagoen txakurrari nolako beldurra dion; litxarkerien dendan matematika nola erakusten dioten edo gurasoak nola galtzen dituen. ■

Kirol heziketari
buruzko gogoetak

Eskola kirolaren antolaketa gure artean egokitze garaia bizi duen honetan, Eusko Ikaskuntzako Hezikuntza Sailak jardunaldi batzuk antolatu zituzten iaz, besteak beste honako galderei erantzuna emateko: zein xederi eman behar zaion lehentasuna, gutxi batzuk goi-mailarako trebatzeari, ala hiritar guztiengan etorkizunerako bizi estilo osasuntsuak sustatzeari. Honez gain, ea posible ote den aipatu helburu horiek uztartuko dituen eredurik sortzea; kirol jardueraren bidez, beti giza balio positiboak lantzen al diren; haurtzaroko kirolaren eragin hezitzailea bermatzeko, ezinbestekoa al den eskolen esku-hartzea arautzea; edota errendimendua lortzeko, nolako protagonismoa izan behar duten kirol elkarteek. Bada, galdera hauei eta beste askori ematen zaie erantzuna Eusko Ikaskuntzaren *Ikastaria*ren 15. zebakian. ■



Ikastaria

Batzuen artean

EUSKO IKASKUNTZA

244 orrialde

14 euro

8 Olivetti poetiko;
Mundopolski,
erreboltaren ziaboga

FTL Antzerkiola Imaginarioa

ARTEZBLAI

98 orrialde / 9 euro

Antzerkiola Imaginarioaren
bi testu dramatiko

Guggenheim museoa inauguratu zenean, proiektu horri eta letra larriz idatzitako kultura ofizialari erantzuteko asmoz sortu ziren Bilbon Mina Espazioa. Bertan jaio zen Antzerkiola Imaginarioa. Orain, Guggenheimek atak ireki dizkio euren antzezlan bati, eta kontraesan horrek, nekeak eta desenkontuak eraman ditu taldekoak agur esatera. Hori baino lehen, orde, beren lau testu dramatiko plazaratzea erabaki dute. Liburu honetan horietako bi agertzen dira: *8 Olivetti poetiko* izenburukoa eta *Mundopolski, erreboltaren ziaboga*. Sekula pentsatu gabeak omen ziren bere lanaren abiapuntu eta helburua testua zenik. Baina justu horixe da irakurleak aurkituko duena liburuan, egunkarietan lan horiei eginiko kritikez gain. ■

Donostialdean
mendiz mendi

Gipuzkoako hiriburutik hasita inguruko mendietara egin daitezkeen berrogei ibilaldi proposatu ditu Jesús M. Pérez Azaceta mendizaleak Sua argitaletxearen eskutik plazaratu duen *Montes desde Donostia* liburuan. Igeldora gutxi ezagutzen duten bide batetik igozteaz proposatuz hasi du liburu, ondoren jolas parketik bisita egiteko. Liburuak makina bat leku bisitatzeko aukera eskaintzen du, mapa eta argazki ugarirekin. Hona hemen batzuk: Santa Klara uhartea, Ametzagaina, Aieteko parkea, Miramon inguruak, Urgull, Santiagomendi, Artikutza, Mendizorrotz, Arratzain, Andatza, Belkoain, Buruntza, San Markos, Txoritokieta, Oindi, Urdaburu, Jaizkibel, Bianditz, Izu eta Adarra. Zeharkaldietan berriz, hiru hondartzak ukitzeko aukera, Galarreta-Santa Barbara-Txillida Leku, edota Donostia-Itziar. ■

Montes desde
Donostia

Jesús M. Pérez

Azaceta

SUA

160 orrialde

11 euro



Nire ahizpa aluita

Antton Kazabon

ELKAR

52 orrialde

7,60 euro

Ahizpa txiki bat duen neskaren kontakizuna

Kostata, baina pasa zaio Amaiari bere ahizpa txikiari eskarmenturen bat emateko gogoa. Izaro maite du orain. Lau urteko aldea dago bien artean, Amaiak bost urte zituenean, txikiak bat baino ez zuen. Eta gurasoek bakarrik uzten zituztenean, bereak eta bost jasan behar izaten zituen Amaiak Izarok egiten zizkion barrabaskeriekin. Urteak aurrera joanda ere, oso bihurria da txikia. Amarengandik hasita, dituen lagun guztietaraino, denek egin behar izaten dute haren nahia. Baina hain da atsegina neska, hainbeste daki ingurukoak bere gogora limurrarazten, Amaiak ere izugarri maite duela

Izaro, eta horregatik egiten dio opari berezia txikiari sei urte betetzen dituenean. ■

Busturiak eta Ribasek egindako komikiaren bigarren atala

Ilunpean bizi ei ziren euskal mitologiako pertsonaiak dira protagonista Unai Busturiak eta Julen Ribasek osatutako *Numenak* komikian. Beren gainbehera errukigabe iristen ari da, argitasunean bizi diren gizakien erruz. Mari, Akerbeltz, Basajaun, lamiak... ohartu dira horretaz, baina aurrera doaz betiko bizimoduan. Haienak jasan behar dituztenak, ordea, argitasunera itzuli nahi dute. Eta halaxe egiten dute: XVI. mendeko Zugarramurdira zein XXI. mendera. *Aita* izan zen sail honetako lehen komikia. Bigarre-na *Alaba* da. ■

Numenak 2

Unai Busturia

SAURE

58 orrialde/ 18 euro



JOXE ARREGI

«Jainkoa badela edo ez dela esatea ez da funtsezkoa»

Bakoitzari omen dagokio bere hautua. Zer da zuretzat Jainkoa?

Errealitatearen edo biziaren bihotzean konfiantza, ontasuna, arnasa eragiten duena da niretzat *Jainkoa*, izen horrekin edo izen hori gabe; beldurra, kaltea, larria eragiten duena ez da *Jainko*, ezta Bibliaren dogmaren izenez jantzita ere.

Zer dela-eta eskatu diezu euskal idazleei beren iritzia?

Deustuko Unibertsitateko Teologia Fakultatean ikerketa bat abiatu nahi genuen: zertan ote den gaur Jainkoaren ausia. Eta nik zer proposatuko nenbilela otu zitzaidan: zergatik ez gaurko euskal idazleei Jainkoaz galdetu? Atrebentzia zen, baina ez naiz damu. *Jainkoaz galdezka* larre joria gertatu zait niri, benetako pagotxa askotan. Galbahe xeheko irina ia dena.

Galdetu zenien guztiek erantzun al dizute?

Ez. Idazle on asko falta dira hor, nahiz eta nor den ona eta nor ez erabakitzea ez izan arazo samurra, Jainkoaren arazoa baino samurragoa izanik ere. Batzuek, nik eskatu eta beraiek nahi izan arren, ezin izan dute. Beste batzuegana iristeko biderik ez dut aurkitu, edo beraien gogoa pizten ez dut asmatu. Beste batzuegana, berriz, ez dut jo neure ezjakintasunagatik, eta horretaz bai naizela damu.

Arazo honetan, zer da funtsezkoena zeuretzat?

Ez da funtsezkoa Jainkoa badela edo ez dela esatea, Jainkoarengan sinesten dugun edo ez. Zer da funtsezkoa? Munduaren edertasunarekin hunkitzea, izakien oinazearekin kupitzea, hitzaren hondo isilean hondoratzea, errealitatearen barne ozenari eta zure izenari adi egotea. Besteen ondoan arnasa hondotik hartzea.



JUAN CARLOS RUIZ / A.P.

40 euskal idazlek Jainkoaz egindako hausnarketak

Joxe Arregik gogorarazten digu mendeak eta milurtekoak daramatzala gizadiak *Jainkoari*

otoizka eta biraoka, dela eta ez dela gogoetan eta eztabaidan, *Jainkoaren* izenean bizitzen eta hiltzen. Eta galdetzen du: "Gu ote gara, hori guztia gezurra eta hutsa dela ohartu diren lehen adimen argituak?". Hauxe da teologian doktore, Deustuko Unibertsitateko irakasle eta *Hemen* erlijio-gogoetarako aldizkariaren sortzaile eta zuzendariak buruan daramabilen adigaietako bat. Eta hortik atera ziren euskal idazleei egin zizkien bost galderak ere: "*Jainkoa*: zer iradokitzen dizu hitz honek? Zein *jainko*rengan ez duzu sinesten? Zein *Jainko*rengan sinesten duzu, sinesten baduzu? Zer izen emango zenuki(ze)oke? Nola irudikatu zenuke? Non eta nola ageri da, ageri bada? Zer eta nola egiten du mundu honetan, ezer egi-



Jainkoaz galdezka. 40 euskal idazleren erantzunak

Joxe Arregi

ALBERDANIA

252 orrialde

ten badu?". Berrogei erantzun jaso zituen, besteak beste, honako idazleenak: Laura Mintegi, Xabier Lete, Koldo Izaguirre, Patziku Perurena, Piarres Aintziart, Uxue Alberdi, Pello Añorga, Pako Aristi, Jon Arretxe, Jos Anton Artze, Joxe Azurmendi, Harkaitz Cano, Itxaro Borda, Junes Casenave, Sustrai Colina, Jean-Louis Davant, Edorta Jimenez, Unai Elorriaga, Pello Esnal eta Joxerra Gartzia. ■

egileari galdezka